

FESTIVAL DE NUEVOS
FORMATOS DOCUMENTALES
Y NUEVAS NARRATIVAS
ARTÍSTICAS Y DIGITALES.

FORMATU DOKUMENTAL ETA
NARRATIBA ARTISTIKO ETA
DIGITAL BERRIEN FESTIBALA.

Loturak

LOTURAKFESTIVAL.COM


MIGRACIONES,
ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA
ETA INKLUSIOA

BILBAO 2021 DEL
13 AL 18 DE DICIEMBRE
/ BILBON, 2021EAN
ABENDUAREN 13TIK 18RA

NARRAZIO DIGITALEK GIZARTEA ERALDATZEKO SENTSIBILIZAZIORAKO TRESNA MODUAN DUTEN AHALMENA ARAKATUKO DU

EXPLORA EL POTENCIAL DE
LAS NARRATIVAS DIGITALES
COMO HERRAMIENTAS DE
SENSIBILIZACIÓN PARA LA
TRANSFORMACIÓN SOCIAL

Loturak



GIZARTE DIGITALIZAZIOA / BITARTEKOAK EUSKARRI BERRIAK

DIGITALIDAD SOCIAL
/ MEDIOS
SOPORTES
EMERGENTES

Loturak kultura-ekitaldi bat da, eta migrazio-prozesuak eta prozesu horiek eragiten dituzten kausak ikusarazteko eta irudikatzeko erronkari heltzen dio. Jaialdi-formatura jotzen dugu, mekanismo eta tresna artistiko eta kultural berrien bidez esploratzeko eta esperimendatzeko, dela herritarren sentsibilizazioa indartzeko, dela hiriek migratzaileen harrerari eta gizarteratzeari ematen dizkieten erantzunak errazteko.

Gure helburua da migrazioen gaineko egungo begiradak berrikustea (horietako asko anomaliak dira), bestearen begirada erakusten duten diziplina narratibo artistiko eta digitalen bidez, zeinek hirien etorkizunari buruz espekulatzen baitute, bestelakotasuna barneratzea sustatzen baitute eta erakusten baitute egungo hibridazio kulturalaren isla, bai eta haien oraina eta geroa ere.

Loturak es un evento cultural que aborda el reto de visibilizar y representar los procesos migratorios y las causas que los motivan. Recurrimos a un formato de festival para explorar y experimentar a través de nuevos mecanismos, herramientas artísticas y culturales para favorecer tanto la sensibilización de la ciudadanía, como las respuestas de las ciudades a la acogida e inclusión de las personas migrantes.

Nuestro propósito consiste en revisar las miradas actuales sobre las migraciones (muchas de las cuales son anomalías) a través de disciplinas narrativas artísticas y digitales que muestran la mirada del otro, que especulan sobre el futuro de las ciudades, que promueven la inclusión de lo distinto y muestran los futuros presentes y los reflejos de las hibridaciones culturales contemporáneas.

DATAK
FECHAS

JAIALDIA BILBON IZANGO DA,
HAINBAT EGOITZATAN, 2021EKO
ABENDUAREN 13TIK 18RA BITARTEAN

EL FESTIVAL SE DESARROLLA EN BILBAO,
EN DISTINTAS SEDES, DESDE EL
13 AL 18 DE DICIEMBRE DE 2021

Loturak jaialdiak LANEN
aukeraketa proposatuko du,
sortzaileek ERREFUXIATUEN
zein MIGRATZAILEEN harrera
eta INTEGRAZIOA irudikatzeko
erronkari nola aurre egiten dioten
erakusteko

Loturak propone una selección de
OBRAS que muestran cómo los y las
creadoras afrontan el reto de representar
la ACOGIDA e INTEGRACIÓN de las
personas REFUGIADAS y MIGRANTES

JAIALDIAREN
EGITARAUAK HAINBAT
JARDUERA DITU,
BESTEAK BESTE,
DOKUMENTAL-
EMANALDIAK,
ERREALITATE
BIRTUALEKO LANAK
EDO MUNDUA
BESTE PERTSONA
BATZUEN BEGIEN ETA
GORPUTZAREN BIDEZ
ESPERIMENTATZEA
AHALBIDETZEN
DUTEN INSTALAZIO
ARTISTIKOAK.

Tailerrak ere egingo dira, hala nola etorkizun interkulturalak ikertzeari buruzkoa, migratzaile gazteekin batera mikronarratibak sortzeko edo partaidetza-argazkigintzako lantegia, zeinean aurpegiak muntatuko baitira bestelako aurpegiak sortzeko eta haiei ere ahotsa emateko. Azkenik, ikus-entzunezko kontzertu bat ere izango da, San Frantzisko auzoko kulturartekotasuna hizpide hartuta.

EL PROGRAMA DEL
FESTIVAL CUENTA
CON DIFERENTES
ACTIVIDADES, ENTRE
LAS QUE SE INCLUYEN
PROYECCIONES DE
DOCUMENTALES, OBRAS
DE REALIDAD VIRTUAL
O INSTALACIONES
ARTÍSTICAS
QUE PERMITEN
EXPERIMENTAR EL
MUNDO A TRAVÉS DE
LOS OJOS Y EL CUERPO
DE OTRAS PERSONAS.

También se van a realizar talleres de investigación de futuros (interculturales), cocreación de micronarrativas con jóvenes migrantes y de fotografía participativa, en el que se realiza un ensamblaje de rostros para crear otros nuevos y darles voz. Finalmente, el programa también cuenta con un concierto audiovisual sobre la interculturalidad en el barrio de San Francisco.



DIGITALITATE SOZIALA, sentsibilizaziorako tresna berriak eta produkzio-paradigma berriak, ZABALKUNDERAKO eta ELKARRERAGINERAKO baliabide zein euskarri berriak

DIGITALIDAD SOCIAL, nuevas
herramientas de SENSIBILIZACIÓN,
y nuevos PARADIGMAS de producción,
nuevos medios y soportes de DIFUSIÓN
e INTERACCIÓN

AKITIBISMOA
SORKUNTZA SOZIALA
FORMATU BERRIAK

ACTIVISMO
CREACIÓN SOCIAL
NUEVOS FORMATOS

- + EMANALDIAK
- + ZABALKUNDERAKO GUNEAK
- + LIVE CINEMA

- + PROYECCIONES
- + ESPACIOS DIVULGATIVOS
- + LIVE CINEMA

PROGRAMACIÓN PROGRAMAZIOA

PROYECCIÓN DE WEBDOCS Y DOCUMENTALES

WEB-DOKUMENTALEN ETA
DOKUMENTALEN EMANALDIAK

WEBDOC 4STELLE HOTEL

4STELLE HOTEL
WEB-DOKUMENTALA

10'

PRESENTACION
/ EMANALDIA



VALERIO MUSCELLA

Valerio Muscella se interesa por temas relacionados con los movimientos sociales, los derechos humanos y la migración forzada en Europa y Oriente Medio. El documental web 4Stelle Hotel ganó el primer premio en el Cross Media Reporting-Dig Award 2015, el primer premio en Docunder 30 -Best Web Series, Italia 2015, y fue seleccionado por el Docubase del MIT (Massachusetts Institute of Technology).

Valerio Muscella mugimendu sozialekin, giza eskubideekin eta Europako eta Ekialde Ertaineko migrazio behartuarekin loturiko gaiez interesatzen da. 4stelle Hotel web-dokumentalak lehen saria irabazi zuen Cross Media Reporting-Dig Award 2015 jaialdian, eta lehen saria irabazi zuen, orobat, Italian 2015ean eginiko Docunder 30 Best Web Series jaialdian. Era berean, Massachusettseko Teknologia Institutuaren Dokubaserako aukeratu zuten.



ABENDUAK
13 DICIEMBRE
19:00

SALA BBK
/ BBK ARETOA

LABURPENA / SINOPSIS

4stelle Hotel es la historia de una comunidad autoorganizada que lucha por un futuro mejor. Más de 200 familias de inmigrantes procedentes de más de 20 naciones diferentes viven en un bloque de pisos multiétnico en las afueras de Roma. Se embarcan en un experimento multicultural único: cómo vivir juntas superando sus diferencias culturales y lingüísticas.

4stelle Hotel etorkizun hobe baten alde borrokatzen den komunitate autoantolatu baten gaineko kontakizuna da. Hogei herrialdeetatik baino gehiagotatik etorritako berrehun etorkin-familia baino gehiago bizi dira etxebizitza-bloke multietniko batean, Erroma kanpoaldean. Esperimentu multikultural paregabe batean murgilduko dira: nola bizi elkarrekin beren desberdintasun kultural eta linguistikoak gaindituz.

+ INFO
WWW.4STELLEHOTEL.IT

Loturak

MIGRACIONES, ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA ETA INKLUSIOA

LOTURAKFESTIVAL.COM

FLOTEL EUROPA

FLOTEL EUROPA

70'

DOCUMENTAL
/ DOKUMENTALA



VLADIMIR TOMIĆ

Vladimir Tomić nació en Sarajevo y a los doce años huyó con su familia a Dinamarca. Hoy vive y trabaja en Copenhague. En sus proyectos, a menudo experimentales, se basa en sus propias experiencias vitales y aborda repetidamente el tema del conflicto entre los individuos y la sociedad en películas como My Lost Generation (2009) y In the Valley of Shadows (2006).

Vladimir Tomić Sarajevon jaio zen, eta, hamabi urterekin, Danimarkara ihes egin zuen familiarekin. Gaur egun Kopenhagen bizi da eta hantxe lan egiten du. Sarritan esperimentalak diren proiektuetan, bere bizitzako esperientzietan oinarritzen da, eta behin eta berriz jorratzen du gizabanakoen eta gizartearen arteko gatazkaren gaia, hala nola My Lost Generation (2009) eta In the Valley of Shadows (2006) filmetan.



ABENDUAK
13 DICIEMBRE
19:00

SALA BBK
/ BBK ARETOA

LABURPENA / SINOPSIS

En 1992, una oleada de refugiadas de la guerra de Bosnia y Herzegovina llegó a Dinamarca. Con los campos de refugiadas existentes completamente llenos, la Cruz Roja sacó un barco gigante a los canales de Copenhague. El barco, "Flotel Europa", se convirtió en un hogar temporal para mil personas que esperaban la decisión sobre sus solicitudes de asilo. Entre ellas había un niño de 12 años, Vladimir, que huyó de Sarajevo junto con su madre y su hermano mayor. Pasaron dos años en el limbo del Flotel Europa. Dos décadas después, Vladimir Tomić nos lleva a un viaje en este barco lleno de ecos de la guerra - y otras cosas que conforman una adolescencia.

1992an, Bosnia eta Herzegovinako gerrako errefuxiatu-andana bat iritsi zen Danimarka aldera. Errefuxiatu-eremuak erabat beteta zeudela, Gurutze Gorriak itsasontzi erraldoi bat atera zuen Kopenhageko kanaletara. Flotel Europa itsasontzia aldi baterako etxe bihurtu zen mila lagunentzat, asilo-eskaeren inguruko erabakiaren zain. Horien artean, 12 urteko haur bat zegoen, Vladimir, zeinak Sarajevotik ihes egin baitzuen amarekin eta anaia zaharrenarekin. Bi urte eman zituzten Flotel Europako linboan. Bi hamarkada geroago, Vladimir Tomić-ek bidaia batera eramango gaitu gerrako oihartzunez eta nerabezaroa osatzen duten beste gauza batzuez beteriko itsasontzi horretan.

+ INFO
WWW.VLADIMIRTOMIC.COM/FLOTEL-EUROPA

WEBDOC POINTS OF VIEW

POINTS OF VIEW
WEB-DOKUMENTALA

10'

PRESENTACION
/ EMANALDIA



ZOHAR KFIR

Zohar Kfir es una artista, educadora y directora/productora de experiencias inmersivas. Su práctica artística emplea narrativas no lineales y técnicas cinematográficas tradicionales con una interactividad ampliada. Zohar ha expuesto su obra en galerías, festivales y conferencias, como el Festival de Cine de Tribeca, el Foro Mundial de RV, el NYUFF, la Transmediale, el FACT Liverpool, el Festival de Cine de Oberhausen, el SIGGRAPH, el ISEA y el RIDM.

Zohar Kfir murgiltze esperientzien artista, hezitzaile eta zuzendari/ekoizlea da. Haren praktika artistikoak narratiba ez-linealak eta teknika zinematografiko tradizionalak erabiltzen ditu, elkarreragin zabalduarekin. Zoharrek hainbat galeria, jaialdi eta konferentzian aurkeztu du bere obra, hala nola Tribecako Zinema Jaialdia, RV Mundu Foroa, NYUFF, Transmediale, FACT Liverpool, Oberhausengo Zinema Jaialdia, SIGGRAPH, ISEA eta RIDM.



ABENDUAK
14 DICIEMBRE
19:00

SALA BBK
/ BBK ARETOA

LABURPENA / SINOPSIS

La base de este documental es el material de vídeo de B'Tselem, el Centro de Información Israelí para los DD.HH en los Territorios Ocupados. En 2007, B'Tselem comenzó a dar a los palestinos que viven en Cisjordania y Gaza cámaras de vídeo, así como formación básica en la filmación y edición. Su objetivo era que estas herramientas les permitieran no sólo documentar la violación de sus derechos, sino también presentar su rabia, dolor, alegría y esperanza.

Dokumental honen oinarria Lurralde Okupatuetako Giza Eskubideetarako Israelgo B'Tselem Informazio Zentroaren bideo-materiala da. 2007an, B'Tselem Zisjordanian eta Gazan bizi diren palestinarrei bideo-kamerak ematen hasi zen, eta oinarrizko prestakuntza eskaini zien filmazioaren eta edizioaren alorrean. Tresna horien bidez, beren eskubideen urraketa dokumentatzeaz gainera, amorrua, mina, poza eta itxaropena aurkeztu ahal izatea ere lortu nahi zuten.

+ INFO
WWW.POINTS-OF-VIEW.NET/EN/

Loturak

MIGRACIONES, ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA ETA INKLUSIOA

LOTURAKFESTIVAL.COM

EL FUTURO PERFECTO

EL FUTURO PERFECTO

65'

DOCUMENTAL
/ DOKUMENTALA

ABENDUAK
14 DICIEMBRE
19:00

SALA BBK
/ BBK ARETOA

LABURPENA / SINOPSIS

Xiaobin Ilegó de China a Argentina. Prueba nombres españoles como si fuesen vestuarios, a ver cuál le queda bien. Intenta nuevos gestos para darle un cuerpo a su nuevo rol. Habla un idioma a pesar de que no lo domina, hasta que se convence a sí misma de su habla. Y mientras tanto, usa la película como sala de ensayo para probar sus futuros posibles.

Xiaobin Txinatik iritsi zen Argentina aldera. Jantziak bezalaxe probatzen ditu izen espainiarrak, ea zein geratzen zaion ondo. Keinu berriak egiten saiatzen da, bere gorputzari bestelako rol bat emateko. Beste hizkuntza batean mintzo da, nahiz eta ez duen menderatzen, harik eta bere burua konbentzitzen duen arte. Bien bitartean, bere etorkizun posibleak probatzeko entsegu-gela modura baliatzen du filma

+ INFO
WWW.PLAY.CINE.AR/INCAA/PRODUCCION/5149



NELE WOHLATZ

Nele Wohlatz nació en 1982 en Hannover, Alemania. Estudió escenografía en Karlsruhe. Participó en el Laboratorio de Cine de la Universidad Di Tella en Buenos Aires y fue becada del Centro de Investigaciones Artísticas. En 2016 fue seleccionada para el Berlinale Talents.

Nele Wohlatz 1982an jaio zen Alemaniako Hannover hirian. Eszenografia ikasi zuen Karlsruhen. Buenos Airesko Di Tella Unibertsitateko Zinema Laborategian parte hartu zuen eta Arte Ikerketen Zentroko bekadun izan zen. 2016an, Berlinale Talents programarako hautatu zuten.



MIGRACIONES, ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA ETA INKLUSIOA

LOTURAKFESTIVAL.COM

WEBDOC REFUGEE REPUBLIC

REFUGEE REPUBLIC
WEB-DOKUMENTALA

10'

PRESENTACION
/ EMANALDIA

ABENDUAK
15 DICIEMBRE
19:00

SALA BBK
/ BBK ARETOA

LABURPENA
/ SINOPSIS

Los titulares sobre la crisis de las refugiadas cubren las portadas de todo el mundo, a menudo acompañados de imágenes de desesperación. Refugee Republic se centra en una parte diferente de la historia para ampliar la concepción de los espectadores sobre la experiencia de los refugiados. El campamento Domiz, en el norte de Irak, alberga a unas 64.000 personas refugiadas sirias, predominantemente kurdas. A través de un mapa interactivo ilustrado, se puede navegar a través de narraciones audiovisuales y conocer a las residentes del campamento.

Errefuxiatuen krisiari buruzko titularrek mundu osoko komunikabideen azalak betetzen dituzte, askotan etsipen-irudiekin lagunduta. Refugee Republic web-dokumentalak bestelako kontakizun bat egiten du, ikusleek errefuxiatuen esperientziari buruz duten ikuspegia zabaltzeko. Irakeko iparraldean dagoen Domiz kanpamenduan 64.000 errefuxiatu siriar daude, kurduak nagusiki. Mapa interaktibo ilustratu bat baliatuz, ikus-entzunezko narrazioen bidez nabigatu daiteke eta, hala, kanpamentuko egoiliarak ezagutu.

+ INFO
WWW.REFUGEE.REPUBLIC.SUBMARINECHANNEL.COM/



JAN ROTHUIZEN

El objetivo del artista Jan Rothuizen, el periodista multimedia Martijn van Tol y el fotógrafo Dirk Jan Visser, es enriquecer la imagen existente de los campos de personas refugiadas construyendo un esbozo anatómico de la vida cotidiana en el campo, mediante una combinación de dibujos, películas, fotografías, sonido y texto para crear una experiencia sensorial.

Jan Rothuizen artistaren, Martijn van Tol multimedia-kazetariaren eta Dirk Jan Visser argazkilariaren helburua da errefuxiatuen erremuetako irudia aberastea, eta, horretarako, landa-eremuko eguneroko bizitzaren zirriborro anatomiko bat eraikitzen du, marrazkiak, filmak, argazkiak, soinua eta testua konbinatuz. Horrekin guztiarekin, zentzumen-esperientzia bat sortzen dute.



MIGRACIONES, ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA ETA INKLUSIOA

LOTURAKFESTIVAL.COM

AMERIKANUAK

AMERIKANUAK

91'

DOCUMENTAL
/ DOKUMENTALA



NACHO REIG

Nacido en Teruel en 1969, Nacho Reig cursó estudios de imagen y sonido en Barcelona. En 1998, su cortometraje *Abrirse camino* es seleccionado para participar en la Semaine de la Critique del Festival de Cannes. *Amerikanuak* es su primer documental.

Nacho Reig Teruelen jaio zen 1969an, eta irudi- eta soinu-ikasketak egin zituen Bartzelonan. 1998an, *Abrirse camino* film laburra Cannesko Zinema Jaialdiren Semaine de la Critique sailean parte hartzeko aukeratu zuten. *Amerikanuak* da bere lehen dokumentala.



ABENDUAK
15 DICIEMBRE
19:00

SALA BBK
/ BBK ARETOA

LABURPENA / SINOPSIS

Amerikanuak cuenta la historia de varias personas inmigrantes vascas en Elko, Nevada (EE.UU.). Básicamente trata sobre la nostalgia, sobre la lucha por una vida decente en un país ajeno y sobre sentirse parte de una comunidad. A través de los recuerdos de Alfonso Igoa, Pete Paris, José Yaniz “Txapo” o Juan Juaristi “Parrillas” conoceremos cómo esta parte de la diáspora vasca se adaptó o se intentó adaptar al lejano oeste americano.

Amerikanuak dokumentalak Elko hiriko euskal immigranteen kontakizuna egiten du (Nevada, Amerikako Estatu Batuak). Nostalgiaz, herrialde arrotz batean bizimodu duina izateko borrokaz eta komunitate bateko kide sentitzeaz hitz egiten du funtsean. Alfonso Igoa, Pete Paris, José Yaniz “Txapo” edo Juan Juaristi “Parrillas” protagonisten oroitzapenen bidez, ikusiko dugu zer-nola egokitu zen euskal diasporaren parte hori – edo saiatu ziren egokitzen– AEBko mendebalde urrunera.

+ INFO
WWW.FILMIN.ES/PELICULA/AMERIKANUAK

Loturak

MIGRACIONES, ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA ETA INKLUSIOA

LOTURAKFESTIVAL.COM

INMERSIÓN, EMPATÍA Y DIVERSIDAD; REALIDAD VIRTUAL (RV) Y VIDEO INMERSIVO

IMMERTSIOA, ENPATIA ETA ANIZTASUNA; ERREALITATE BIRTUALA; ETA BIDEO IMMERTSIBOA

Un espacio de conocimiento y sensibilización mediante el visionado y la interacción con obras de Realidad Virtual e inmersiva. Los contenidos están relacionados con la diversidad cultural y social y promueven la sensibilización y el conocimiento. La actividad pone de manifiesto el potencial de la realidad virtual de generar empatía y sus posibilidades de formación, concienciación y sensibilización.

Para iniciar el visionado se elige uno de los 3 playlist disponibles. Duración aproximada de las sesiones 40 minutos. Aforo 25 personas simultáneas.

Se utilizarán 25 dispositivos de Realidad Virtual Oculus Quest 2.

Actividad de la mano de EITB en el marco de la campaña #EKIN_aniztasuna.

Ezagutza- eta sentsibilizazio-espazio bat, errealitate birtual eta immertsiboko obrak ikusiz eta haiekin interakzioan jardunez. Edukiak kultura- eta gizarte-aniztasunarekin lotuta daude, eta sentsibilizazioa eta ezagutza sustatzen dituzte. Jarduerak agerian uzten du errealitate birtualak enpatia sortzeko duen potentziala, bai eta prestakuntza, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa sustatzeko ahalmena ere.

Ikusten hasteko, eskuragarri dauden 3 playlistetako bat aukeratu behar da. Saioen gutxi gorabeherako iraupena: 40 minutu. Aldi berean 25 lagunentzako lekua dago.

Oculus Quest 2 izeneko errealitate birtualeko 25 gailu erabiliko dira.

EiTBren eskutik antolaturiko jarduera, #EKIN_aniztasuna kanpainaren barruan.

DEL 13 AL 15/12 DE 10,00 A 14,00
Y DE 16,00 A 20,00
HALL DE LA SALA BBK

DEL 16 AL 18/12 DE 10,00 A 14,00,
HALL DE LA SALA BBK

ABENDUAREN 13TIK 15ERA, 10:00ETATIK 14:00ETARA
ETA 16:00ETATIK 20:00ETARA
BBK ARETOAREN ATARIA

ABENDUAREN 16TIK 18RA, 10:00ETATIK 14:00ETARA,
BBK ARETOAREN ATARIA

OBRAS DE VÍDEO INMERSIVO DEL PROYECTO HOLDING ON

HOLDING ON PROIEKTUAREN
BARRUKO BIDEO-LANAK

PLAYLIST 1
/ 1. PLAYLISTA

IDIOMA :
CASTELLANO

HIZKUNTZA :
GAZTELANIA

LABURPENA
/ SINOPSIS

Mediante una reflexión sobre sus posesiones más preciadas, Holding On narra las historias de aquellas personas que han sido desplazadas dentro de sus fronteras territoriales en sus países de origen, debido a conflictos, desastres, violencia y tensiones climáticas. Estas posesiones se convierten en la única representación física de aquel mundo que se ha desvanecido. Una llave, una camisa, se vuelven símbolos de persistencia y de esperanza.

Euren jabetzarik preziatuenei buruzko hausnarketa baten bidez, Holding On proiektuak gatazka, hondamendi, indarkeria eta tentsio klimatikoaren ondorioz jatorrizko herrialdeetan beren lurralde-mugen barruan desplazatu dituzten pertsonen kontakizuna egiten du. Jabetza horiek desagertu den mundu horren errepresentazio fisiko bakar bihurtzen dira. Giltza bat edo alkandora bat iraunkortasunaren eta itxaropenaren sinbolo bihurtzen dira.

+ INFO
WWW.HOLDING-ON.IOM.INT/ES/ABOUT-US

Holding on es un proyecto producido por la Organización Internacional de las Migraciones (OIM)

Holding On Migrazioen Nazioarteko Erakundearen ekoiztako proiektu bat da



MIGRACIONES, ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA ETA INKLUSIOA

LOTURAKFESTIVAL.COM

HOME AFTER WAR OBRA INTERACTIVA DE REALIDAD VIRTUAL

HOME AFTER WAR
ERREALITATE BIRTUALEKO
OBRA INTERAKTIBOA

IDIOMA :
CASTELLANO

HIZKUNTZA :
INGELES

LABURPENA / SINOPSIS

Home After War es una experiencia de realidad virtual interactiva que te lleva a Faluya, una ciudad que hasta hace poco estaba bajo el control del Estado Islámico. La guerra contra el ISIS ha terminado, pero la ciudad sigue siendo insegura. Explora la casa de Ahmaied caminando físicamente o teletransportándote en el espacio mientras te cuenta la historia sobre su regreso a casa.

Home After War errealitate birtual interaktiboko esperientzia bat da, eta orain arte Estatu Islamikoaren kontrolpean egoniko Faluya hirira eramango gaitu. Amaitu da Estatu Islamikoaren kontrako gerra, baina hiriak arriskutsu izaten jarraitzen du. Arakatu Ahmaieden etxea, fisikoki edo espazioan telegarriatuta, etxera itzuli zeneko kontakizuna egiten dizun bitartean.

+ INFO
WWW.HOMEAFTERWAR.NET

PLAYLIST 2
/ 2. PLAYLISTA



GAYATRI PARAMESWARAN

Gayatri Parameswaran es una periodista india que cree en el poder de las historias para transformar. Dirige un estudio en Berlín llamado NowHere Media especializado en documentales de impacto social. Su trabajo explora temas como la guerra, la paz, la violencia de pareja y el aborto y lo que más le entusiasma es utilizar la realidad virtual como medio para crear realidades para un futuro deseable.

Gayatri Parameswaran kazetari indiarrek biziki sinesten du istorioek eraldatzeko duten ahalmenean. NowHere Media izeneko estudio bat zuzentzen du Berlinen, zeina eragin sozialeko dokumentaletan espezializaturik baitago. Besteak beste, gerra, bakea, bikote-indarkeria eta abortua aztertzen ditu, eta errealitate birtuala erabiltzea gustatzen zaio gehien, etorkizun desiragarri baterako errealitateak sortzeko.



MIGRACIONES, ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA ETA INKLUSIOA

LOTURAKFESTIVAL.COM

REPLACEMENTS OBRA DE VÍDEO INMERSIVO

REPLACEMENTS
BIDEO IMMERTSIBOKO
OBRA

IDIOMA :
CASTELLANO

HIZKUNTZA :
GAZTELANIA

LABURPENA / SINOPSIS

Replacements muestra a una familia javanesa que observa rutinariamente su barrio día tras día, generación tras generación. Una historia sobre las raíces, el tiempo y el cambio. Inspirada en personas y lugares realmente existentes, nos hace testigos de las transformaciones urbanas, medioambientales, políticas y culturales de una congestionada metrópolis desde 1980 hasta 2020.

Replacements obrak Javako familia bat erakusten du, zeinak egunez egun behatzen baitio bere auzoari, belaunaldiz belaunaldi. Sustraiei, denborari eta aldaketari buruzko istorioa. Benetan existitzen diren pertsona eta lekuetan inspiratuta, metropoli kongestionatu horrek 1980tik 2020ra bitartean izaniko eraldaketak aztertzen ditu: hiriarekin eta ingurumenarekin lotuak, politikoak eta kulturalak.

+ INFO
WWW.CARGOCOLLECTIVE.COM/JONATHANHAGARD/REPLACEMENTS

PLAYLIST 2
/ 2. PLAYLISTA



JONATHAN HAGARD

Jonathan Hagard es un director, animador e ilustrador indonesio afincado en Kioto (Japón). Cuenta historias a través de la animación tradicional y los nuevos medios, basándose en sus experiencias e investigaciones en ciudades en expansión como Tokio y Yakarta. Aborda el documental de animación.

Jonathan Hagard Kyoton (Japonia) bizi den zuzendari, animatzaile eta ilustratzaile indonesiarra da. Animazio tradizionalaren eta hedabide berrien bidez kontatzen ditu istorioak, eta Tokio, Jakarta eta halako hirietan izaniko esperientzia eta ikerketak hartzen ditu oinarri. Animaziozko dokumentalari heltzen dio.



MIGRACIONES, ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA ETA INKLUSIOA

LOTURAKFESTIVAL.COM

THE KEY OBRA INTERACTIVA DE REALIDAD VIRTUAL

THE KEY
ERREALITATE BIRTUALEKO
OBRA INTERAKTIBOA

IDIOMA :
INGLÉS

HIZKUNTZA :
INGELES

LABURPENA / SINOPSIS

Anna no recuerda su pasado, pero tiene vívidos sueños sobre él. En cada uno de sus sueños, hay una misteriosa llave. ¿Será capaz de desvelar el misterio que hay detrás de la llave sin sacrificar demasiado? The Key es una experiencia de realismo mágico que te llevará a un viaje a través de los sueños, enfrentándote a retos y decisiones difíciles, que te llevarán a una impactante revelación.

Annak ez du gogoratzen bere iragana, baina amets biziak ditu haren gainean. Amets bakoitzean giltza misteriotsu bat agertzen zaio. Gai izango ote da giltzaren atzean ezkutaturiko misterioa argitzeko, gehiegi sakrifikatu gabe? The Key errealismo magikoko esperientzia bat da, ametsetan zehar bidaia bat egitera eramango gaituena; erronka eta erabaki zailei aurre egin beharko diegu, eta errebelazio zirraragarri bat izango dugu azkenean.


PLAYLIST 3
/ 3. PLAYLISTA



CELINE TRICART

Celine Tricart es una aclamada artista que ha desarrollado un estilo único con historias muy emotivas y un fuerte arte visual. Su trabajo se ha exhibido en numerosos festivales, como Sundance, Venecia, Tribeca, SXSW y HotDocs, entre otros. Celine fundó Lucid Dreams Productions, una productora especializada en nuevas tecnologías y en la narración audaz y empoderada.

Celine Tricart artista ospetsua da, oso istorio hunkigarriak eta arte bisual sendoko estilo paregabea garatu duena. Hainbat jaialditan erakutsi dute haren obra, hala nola Sundance, Venezia, Tribeca, SXSW eta HotDocs, besteak beste. Tricartek Lucid Dreams Productions sortu zuen, teknologia berrietan eta narrazio ausart eta ahaldunduan espezializatutako ekoizpen-etxea.



MIGRACIONES, ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA ETA INKLUSIOA

LOTURAKFESTIVAL.COM

THE REAL THING OBRA DE VÍDEO INMERSIVO

THE REAL THING
BIDEO IMMERTSIBOKO
OBRA

IDIOMA : HIZKUNTZA :
CHINO MANDARINERA
MANDARÍNCON INGELESEZKO
SUBTÍTULOS
EN INGLÉS

LABURPENA / SINOPSIS

The Real Thing es un viaje en VR a una copia de nuestro mundo. Alrededor de las ciudades más grandes de China, barrios enteros se han inspirado en modelos extranjeros. La película explora las más impresionantes de estas “ciudades falsas”. Viaja de París a Londres y Venecia, sin salir de China y sus habitantes nos guían por su mundo paralelo.

The Real Thing errealitate birtualean gure munduaren kopia batera eginiko bidaia bat da. Txinako hiri handienen inguruan, auzo osoak atzerriko eruedetan oinarritu dira. Filmak “gezurrezko hiri” horietako harrigarrienak aztertzen ditu. Paristik Londresera eta Veneziara bidaiatzen du, Txinatik irten ere egin gabe, eta bertako biztanleek beren mundu paraleloan zehar gidatzen gaituzte.

+ INFO
WWW.THEREALTHING.FILM



BENOIT FELICI

Benoit Felici es un cineasta franco-italiano afincado en París. Sus películas Unfinished Italy y The Real Thing se han estrenado en festivales de cine internacionales como HotDocs, DokLeipzig, Full Frame, Dok München, Thessaloniki Film Festival, BAFICI, Raindance, Camden, Future of Storytelling NY, Sheffield Doc Fest, Clermont-Ferrand, recibiendo numerosos premios.

Benoit Felici zinemagile franko-italiar bat da, eta Parisen bizi da. Haren Unfinished Italy eta The Real Thing filmak nazioarteko hainbat zinema-jaialditan estreinatu dituzte; esataerako, HotDocs, DokLeipzig, Full Frame, Dok München, Thessaloniki Film Festival, BAFICI, Raindance, Camden, Future of Storytelling NY, Sheffield Doc Fest, Clermont-Ferrand... Eta sari ugari eskuratu dituzte.



MIGRACIONES, ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA ETA INKLUSIOA

LOTURAKFESTIVAL.COM

DEL TALLER AL ESCENARIO; LIVE CINEMA REMEZCLA IDENTIBUZZ

LANTEGITIK AGERTOKIRA;
LIVE CINEMA ETA IDENTIBUZZ
NAHASTEN

16 A 17 DICIEMBRE
TALLERES

ABENDUAK 16 ETA 17
LANTEGIAK

18 DICIEMBRE - 19,00
CONCIERTO AUDIOVISUAL

ABENDUAK 18, 19:00 ETAN
IKUS-ENTZUNEZKO KONTZERTUA

LOCALIZACIÓN:
POR DETERMINAR

NON:
ZEHAZTEKE

DESCRIPCIÓN
/ DESKRIBAPENA

El taller de creación audiovisual se propone como un espacio de trabajo para personas con perfiles diversos (del ámbito musical, audiovisual, performance, danza o teatro y con conocimiento en la materia a trabajar). A partir de una serie de metodologías prácticas se elaborará una película en directo que se presentará al final del taller el día 18/12, Día Internacional de las Personas Migrantes.

Ikus-entzunezko sorkuntza-tailerra askotariko profilak dituzten pertsonentzako lan-espazio gisa proposatzen da (musika, ikus-entzunezkoak, performancea, dantza edo antzerkia, eta landu beharreko gaiari buruzko ezagutza dutenak). Metodologia praktikoetatik abiatuta, film bat egingo da zuzenean, eta tailerraren amaieran aurkeztuko da, abenduaren 18an, Migratzaileen Nazioarteko Egunean.

+ INFO
WWW.VOLUBLE.NET

TEMÁTICA
/ GAIA

Con el taller y el espectáculo en directo se conmemora y se remezcla con un nuevo discurso y nuevos contenidos el proyecto Identibuzz realizado en el barrio de San Francisco en 2011.

Zuzeneko tailer eta ikuskizunarekin 2011n San Frantzisko auzoan egindako Identibuzz proiektua oroituko da, eta diskurtso eta eduki berriekin nahastuko.

PEDRO
JIMÉNEZ

CONDUCTOR DEL TALLER
/ LANTEGIAREN GIDARIA

Desde el año 1996 ha desarrollado proyectos de experimentación audiovisual y activismo sonoro en multitud de formatos. Trabaja desde la improvisación audiovisual, el political remix video y en colaboración de otros artistas como bulos.net, Raúl Cantizano, Niño de Elche o Rocío Márquez. Forma parte de ZEMOS98 y Telegrama Cultural.

1996az geroztik, ikus-entzunezko esperimenezko eta soinu-aktibismo proiektuak garatu ditu hainbat formatutan. Ikus-entzunezko inprobisazioa eta bideo politikoen nahasketa ditu lanaren abiapuntu, eta kolaboratzaile ditu, besteak beste, bulos.net, Raúl Cantizano, Niño de Elche eta Rocío Márquez artistak. ZEMOS98 eta Telegrama Culturaleko kide da.

JANA
JAN

COLABORADORA
/ KOLABORATZAILEA

Jana Jan a.k.a. Itziar Markiegi. Artista transdisciplinar, dibujante, ruidista y performer, experimenta y realiza colaboraciones gráficas y sonoras e improvisaciones con diferentes artistas. Co-creadora de Baba-Llaga, AM, Magmadam, Zorra, FFFist y Grutal, también es parte de Leun Dura y Emankore.

Itziar Markiegi a.k.a. Jana Jan. Artista transdisciplinarra, marrazkilaria, zaratazalea eta performerra, kolaborazio grafikoak eta soinudunak ez ezik inprobisazioak ere esperimenezko eta egiten ditu hainbat artistarekin. Baba-Llaga, AM, Magmadam, Zorra, FFFist eta Grutal sortzen esku hartu zuen, eta, orobat, Leun Dura eta Emankoreko kide da.

MIGRACIONES, ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA ETA INKLUSIOA

LOTURAKFESTIVAL.COM

Loturak

FIXTIONS. FICCIONES COLABORATIVAS PARA INTERVENIR DESDE LA ESPECULACIÓN EN REALIDADES MIGRATORIAS EMERGENTES

FIXTIONS. FIKZIO KOLABORATIBOAK, ESPEKULAZIOTIK ESKU HARTZEKO SORTZEN ARI DIREN MIGRAZIO-ERREALITATE DESBERDINETAN

16 Y 17 DICIEMBRE
/ ABENDUAREN 16 ETA 17

LABORATORIOS URBANOS DE BILBAO AS FABRIK.
(ZORROZAURRE)

HIRI LABORATORIOAK, BILBAO AS FABRIK
(ZORROTZAURRE)

DESCRIPCIÓN / DESCRIPCIÓN

Fixtions propone un marco metodológico experimental de ficción colaborativa transmedia. Centrándose más en lo narrativo que en el diseño de producto, aprovecha las capacidades del relato para producir un universo imaginario que permite explorar el diseño de prototipos especulativos y sus ensamblajes. El proceso se lleva a cabo utilizando distintos lenguajes de expresión, dando como resultado una narrativa transmedia producida colectivamente.

Fixtionsek transmedia fikzio kolaboratiboko esparru metodologiko esperimetal bat proposatzen du. Gehiago erreparatzen dio narrazioari produktuaren diseinuari baino, eta kontakizunaren gaitasunak baliatzen ditu irudimenezko unibertso bat sortzeko, zeinak aukera ematen baitu espekulazio-prototipoen diseinua eta horien muntaketak esploratzeko. Prozesua hainbat adierazpen-lengoaia erabiliz gauzatzen da, eta, ondorioz, kolektiboki ekoiztako narratiba transmedia bat sortzen du.

+ INFO
WWW.MEDIUM.COM/@ANDREUBELSUNCES / WWW.BECOMING.NETWORK / WWW.CONTROLWARS.ORG

ANDREU BELSUNCES

Investiga en la intersección entre la sociología de la tecnología y el diseño, culturas posdigitales, nuevas narrativas, prácticas colaborativas e innovación social.

Ha trabajado con UNESCO, AECID, CCCB, Sónar o Medialab. Ha sido investigador residente sobre políticas de la interfaz en Hangar, ha comisariado el pabellón de pensamiento digital en la bienal The Wrong 2016, ha escrito sobre cultura y tecnología en diversos medios.

Teknologiaren soziologiaren eta diseinuaren arteko intersektzioa, kultura postdigitalak, narratiba berriak, lankidetzak-praktikak eta gizarte-berrikuntza ikertzen ditu.

Lan egin duen tokien artean nabarmentzen dira, besteak beste, UNESCO, AECID, CCCB, Sónar edo Medialab. Interfazearen politikei buruzko ikertzaile egoiliarra izan da Hangarren, pentsamendu digitalaren pabiloiaren komisario izan da The Wrong 2016 bienalean, eta kulturaz eta teknologiaz idatzi du hainbat hedabidetan.

THEMACHINETOBEANOTHER (TMTBA)

THEMACHINETOBEANOTHER
(TMTBA)

15 AL 18 DICIEMBRE
/ ABENDUAREN 15ETIK 18RA

HALL LABORATORIOS URBANOS DE BILBAO AS FABRIK
(ZORROTZAURRE).

HIRI LABORATORIOEN ATARIA, BILBAO AS FABRIK
(ZORROTZAURRE).

DESCRIPCIÓN / DESCRIPCIÓN

Diseñado para profundizar en el estudio de fenómenos sociales como la identidad o la empatía, TheMachinetobeAnother (TMTBA) ha sido utilizado como herramienta de sensibilización y resolución de conflictos. Se ha presentado en más de 20 países desde el festival Tribeca de Nueva York a la exposición itinerante Human+ celebrada en Barcelona, Roma y Singapur, pasando por presentaciones institucionales en el Foro Económico Mundial y la Asamblea General de Naciones Unidas.

Identitatea, empatia eta halako fenomeno sozialen azterketan sakontzeko diseinatua da TheMachinetobeAnother (TMTBA), eta sentsibilizatzeko eta gatazkak konpontzeko tresna gisa erabili da. New Yorkeko Tribeca jaialdian ezagutarazi ondotik, 20 herrialdetan baino gehiagotan aurkeztu da Human+ erakusketa ibiltaria –Bartzelonan, Erroman eta Singapurren, kasu-, eta aurkezpen instituzionalak egin dira Munduko Ekonomia Foroan eta Nazio Batuen Batzar Nagusian.

+ INFO
WWW.BEANOTHERLAB.ORG/

Loturak

AUTORES

BeAnotherLab es un colectivo artístico y de investigación especializado en el uso de la realidad virtual como herramienta de estudio y transformación social. Su dispositivo TheMachineToBeAnother (TMTBA), combina ciencias cognitivas, realidad virtual y performance para generar en el usuario la percepción de habitar los cuerpos e historias de vida de otras personas reales, fomentando así la toma de perspectiva y la reflexión.

BeAnotherLab ikerketaren eta artearen alorrean diharduen kolektibo bat da, eta espezializaturik dago errealitate birtuala azterketarako eta eraldaketa sozialerako tresna gisa erabiltzen. TheMachineToBeAnother (TMTBA) gailuak zientzia kognitiboak, errealitate birtuala eta performancea konbinatzen ditu, erabiltzailearengan beste pertsona erreala batzuen gorputzak eta bizi-istorioak bizitzeko pertzepzioa sortzeko, eta, horren bidez, perspektiba eta hausnarketa sustatzen ditu.

MIGRACIONES, ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA ETA INKLUSIOA

LOTURAKFESTIVAL.COM

ROBOTECA

ROBOTECA

15 AL 18 DICIEMBRE
/ ABENDUAREN 15ETIK 18RA

CONTENEDOR SITUADO EN EL ESPACIO PÚBLICO,
ENTRE EL MERCADO Y EL PUENTE PEATONAL DE LA
RIBERA.

BIDE PUBLIKOAN KOKATURIKO EDUKIONTZIA,
ERRIBERAKO MERKATUAREN ETA OINEZKOEN ZUBIAREN
ARTEAN.

DESCRIPCIÓN / DESCRIPCIÓN

Roboteca es un taller de fotografía dedicado a las poblaciones desplazadas, migrantes y refugiadas, pero también a las comunidades de acogida. Trabajando a partir de autofotos tomadas en un taller de fotografía, las participantes ensamblan piezas de rostros para crear otros nuevos y darles voz. El «retrato-robot» da lugar a nuevos rostros imperfectos, que se unen lo mejor que pueden.

Roboteca argazkilaritza-tailer bat da, desplazatutako herriei, migratzaileei eta errefuxiatuei eskainia, baina baita harrera-komunitateei ere. Argazkigintzako tailer batean hartutako autofotoetatik abiatuta, parte-hartzaileek aurpegietako piezak muntatzen dituzte, bestelako aurpegi berriak sortzeko eta ahotsa emateko. “Erretratu-robotak” aurpegi inperfektu berriak sortzen ditu, ahalik eta hobekien elkartzen direnak.

+ INFO
WWW.SEVERINESAJOUS.COM / WWW.REVISTA5W.COM/AUTORES/SEVERINE-SAJOUS

Loturak

SEVERINE SAJOUS

Séverine Sajous es una fotógrafa y artista visual francesa. Considera la fotografía como una herramienta de compromiso social que propicia la toma de conciencia y el pensamiento crítico. En 2015, cofunda la asociación Jungleye, que involucra a las comunidades a través de la práctica participativa con la fotografía. Combina la enseñanza con su asociación en diferentes contextos, con sus propios proyectos de fotografía y cine.

Séverine Sajous frantziar argazkilaria eta artista bisuala da. Gizarte-konpromisoko tresnatzat hartzen du argazkigintza, irizten baitio kontzientzia hartzea eta pentsamendu kritikoa bultzatzen dituela. 2015ean, Jungleye elkarte sortu zuen, zeinak komunitateak inplikatzeko baititu praktika partizipatiboaren bidez. Irakaskuntza hainbat testuingurutan elkartuta egotearekin konbinatzen du, bere argazkigintzako eta zinemako proiektuekin.

MIGRACIONES, ACOGIDA E INCLUSIÓN
/ MIGRAZIOA, HARRERA ETA INKLUSIOA

LOTURAKFESTIVAL.COM

HARREMANETARAKO


CONTACTO

PELLO MAUDO
PELLO@MOVILTIK.ORG
679578373

JOSÉ LUIS RONCERO
JOSÉ LUIS@UBIQA.COM
659297463

Loturak Festival está
organizado por la Asociación
de Innovación Cultural Moviltik//
Loturak Festival Moviltik
Berrikuntza Kulturalerako
Elkarteak antolatutako
proiektua da.

Calle Bailén 1,
4. Puerta 4
48003 Bilbao



MOVILTIK

bbk

eitb

Bizkaia

ELSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

anesvad

Bilbao
AS Fabrik

Mondragon
Unibertsitatea



Bilbao